

# EUSKALTZALEAK ETA POLITIKOAK

Gogora ditzagun, hasteko, mila bider esandako topiko batzuk.

Euskararen alde lan egiteari eta euskaltzaletasunari «politika usaina» hartzen zitzaion orain urte batzuk: kalean ezezik, elizaren barruan eta seminarioetan ere ez zen oso ondo ikusita egoten, inor euskaltzale izatea. Zer esanik ez handik kanpora.

Gero iraultzaileak agertu ziren. Horien aldetik ere makina bat burla jasan behar izan du euskaltzaleak: bibolina jotzen ari omen ziren «kulturalistak». Lan gogoragoak behar zituen, ordea, Euskal herriak, bizirik aterako bazen.

## euskara kultura

Halere, urte batzuen eta neke askoren buruan, jendearen begitan euskaltzaletasunak autonomia piska bat lortu du politikari buruz, lan gogoragoetan zebiltzanen errespetua ere lortu du.

Denek aitortzen dizute, euskara, edozein opzio politikotatik aparte, aberastasun kultural eta historiko inportante bat dela. «Acervo cultural» etab. etab., hitzetik hortzera.

Paperak aldatu ere egin bide dira. Lehen euskaltzaleek politiko batzuen laguntzaile bihurtu behar dutela. Inork ez du eginkizun kultural horretan atzera geratu nahi, barbaro inzibilizatu bezala. Barandiaranek, Tovarek, etc. etc. etc., mila jakintsu haundik, ez ote du euskara goratu? Eusko Jaurlaritzak bere birreuskaltze planak azaldu ditu eta Alderdi denak euskararen alde, zein baino zeinago.

## politikoak eta euskara

Euskaltzaleok beti pentsatu dugu, politikoen obligazio larria zela, euskararen arazoan gogor halegitea. politikak ez bes-

— JOXE AZURMENDI —



tek salbatuko zuela euskara. Baina euskaltzaleok beti deskonfiantza handi batekin begiratu diegu politikoei. Kontu zaharra da hori, gerra aurrean ere berdintsu zen. Orduan, PNVren barruan badaude PNVren kritikak, HBean badaude HBaren kritikak, EEan ere bai EEaren kritikak..., euskararen arazoan esanak eta izanak ionn ez dabiltzalako batera. Mundu honetan «errealismoak» agintzen du, baina politikoen eta euskaltzaileen errealismoak ez ditu nonbait agindu berdinak.

Bai, eta halere, euskaltzaleak aurrerapen handi bat konstatatzen du herri honen kontzientzia politikoan euskarari buruz. Alderdien kontzientzian euskarari buruz. Oso erraza da orain ere politiko eta kargudun

publiko axolakabeak edozein Alderditan behatzarekin seinaltzea: «haurrak eskola frantzesera edo inglesera bidaltzen dituen euskal Deputatu hori!», esango da. Holaxe dabilta Alderdi batekoak bestekoarekin, beti ere tolerantzia gehixeagoz norbere Alderdikoekin, besteetakoekin baino.

Hemen, ETatik PNVeraino, Alderdien praksian erdara da beti jaun eta jabe. Hori da egia, eta apenas Alderdi batetan edozein bestetan baino gutxiago edo gehiago. Denak dira eskizofrenikoak alde batetik esaten eta bestetik egitenari direnetan. Arrazoiak denok dakizkigu.

## euskaltzaleak eta politikoak

Eta halere, ordea, esaten eta eskatzen eta agintzen dutenera beraietatik inor iristen ez bada ere gero, oso positiboa da, bai, euskaltzalearen ikuspegitik, Alderdi guztiak lasterketa itxura horretan ibiltzea, zein baino zein euskararen alderago.

Baina ta, halere, euskaltzaleok deskonfiantza handi batekin jarraitzen dugu politikoei buruz euskararen arloan. Eta ez aho beroagoak ikusten dizkiegulako eskuak baino. Ez behintzat horregatik bakarrik.

Hogei urte eta gehiago duela, euskal politikarienganako deskonfiantza garbi agertzen zuen Mirandek, «beren oraindano jokoeratik epaituta». Urteotan eboluzio handia egin dute politikariek, «dudarik ez: kezkatu ageri dira euskararen alde. Horixe bait zen euskaltzaleek esakatzen zieten. Baina politikoak eta euskaltzaleak, itxura duenez, lehenago bezain elkarren urrun aurkitzen dira: euskaltzaletasunak ere bere eboluzioa egin bait du urteotan. Eta euskaltzaileen eboluzioa eta politikoen eboluzioa ez dira nonbait batera ibili.